


Heri... lizkaria

2000ko iraila 60. alea



Udari alai agur egiteko...
Santa Anastasiak!

ERREPORTAIA: EUSKALTEGIAK
IZERDI PATSETAN: PIRINIOAK TXIRRINDUZ
BOTEPRONTOAN: JUANLU ESCUDERO



MERKA-UROLA ALTZARIAK



***Santa Anastasia jai zoriontsuak
opa dizkizuegu***

Mugitegi, 17
Tel./faxes: 943 72 58 28
URRETXU



Mende erdialdean bi herriotako gazteez osatutako futbol taldeari ateratako argazkia. Zenbaitek burua estalita zerametela ikusirik, pentsa daiteke ez zela gozoa izango baloia buruz jotzea!

Zutik, eskubitik ezkerretara: Pedro Mari Arratibel, Jose Mari Leturia, Patxin Arrizabalaga, Andoni Aranzadi, Joseba Zumarraga eta Luis Leturia.

Behean: Venancio Barrena, Miguel Urteaga, Jose Mari Kortaberria, Vicente Araña eta Javier Berjerandi.

Ikusleen artean: Txibisto, Andres Urbizu, Askasibar, Jose Roman Urkiola, Jesus Mari Mendia, Hurtado, Iturbe "Agiñeta" eta Hurtado.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldia **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldia.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

Manuel Indiano Zumarragako Udaleko PPko zinegotziaren aurkako atentatua

Abuztuaren 29an ETAK Zumarragako PPko zinegotzia zen Manuel Indiano tiroz hil zuen Filipinar Irlak kalean zuen Kokolo gozodendan goizeko 10:00ak inguruan. Bizilagunek zenbait hots arraro sumatu zuten eta leihoetara atera ziren, baina ez zuten ezer ikusi. Handik gutxira dendan sartu ziren bi emakumek Manuel Indiano lurtean aurkitu zuten eta laguntza eske atera ziren. Ertzaintza eta anbulantzia heldu zirenerako zinegotzia klinikoki hilik zegoen eta Zumarragako ospitalean hura erreanimatzeko saioak egin arren ez zuten ezer egiterik izan haren bizia salbatzeko.

Manuel Indiano duela 29 urte jaio zen Madrilen, baina egun Zumarragan bizi zen neska-lagunarekin eta haren alabarekin eta bi hilabete barru aita izatekoa zen. Elektronika ikasketak eginak zituen baina ez zuen lanik eta duela hiru urte Zumarragara etorria zen ea lanik bilatzen ote zuen. Azken udal hauteskundeetan PPko zerrendetan seigarren aurkeztu zen independente gisa, ez zen alderdiko afiliatua, eta otsailean hartu zuen kargua Faustino Villanuevak kargua utzi ondoren. Indianok ez zuen osoko bilkuretan parte hartzen, berak hala eskatuta apirilaz geroztik ez zuen bizkar-tzainik eta politikagintza uzteko asmoa ere bazuen.

Hasiera batean hil-kapera Zumarragako udaletxean jartzeko asmoa izan arren, familiak Madrileramateko nahia azaldu zuen eta abuztuaren 30ean bertako Almudenako katedralean egin zen hileta ospakizuna eta ondoren Chamartingo hilerrian lurperatu zuten.

Hilketaren eguneko arratsaldean Zumarragako Udalak ezohiko bilkura egin zuen eta EAJ, EA, PP, PSE-EE eta EBko zinegotzien botoekin -EHkoak abstenitu egin ziren- Manuel Indianoren hilketari buruzko udal akordioa onartu zuen. Horren arabera hildakoaren sendiari dolu-mina agertu, ETARI "euskal herritarrek behin eta berriro azaldutako elkarbizitzarako borondate demokratikoa" errespetatzeko eskatu eta "ETAren jardura totalitarioak mehatxatutako herritar guztien askatasun eta eskubideak" defendatzeko konpromisoa hartu zuen Zumarragako Udalak. Bestalde, Udalak hiru dolu-egun



ofizial agintzea erabaki zuen eta hiru egun horietan bandera ofizialak masta erdiraino eta zinta beltzez jarriak egon ziren.

Ezohiko bilkurako botazioaren ondoren, EHko zinegotziak gertatutakoari buruzko iritzia emateko idazki bat irakurtzen hasi zirenean, entzule talde batek eragotzi egin zien "kanpora" eta "hiltzaileak" oihukatuz. Aretoaren goiko aldean zeuden beste entzule batzuek "Euskal Herriarentzat demokrazia" eskatuz erantzun zieten, lehenengo taldekoen jarra sumindu eta tentsioa areagotu egin zen, baina berehala udal batzarra amaitutzat ematean, giroa baretu zen.

EH osoko bilkuran irakurtzen saiatu zen testuan Manuel Indianoren heriotza "atsekabez" hartzen duela adierazi zuen. Hildakoaren senideen samina bere egiteaz gain, gertaerak berriz ere euskal gatazkaren gordintasuna agerian uzten duela esan zuen. Gatazkaren konponbidean ekarpenik egiten ez duten gaitzespen dinamikak alde batera uzteko dei egin zuen EHK, horrelako gertaerak ekiditeko balio ez dutela esanez. Gatazkari aurre egiteko haren erroak gainditu behar direla iritzi dio EHK, eta ildo horretan Lizarrako Akordioaren edukia defenditu zuen.

Arratsaldeko 20:00etan hilketa gaitzesteko elkarteratzea izan zen Udaletxe aurrean. EAJ, EA, IU eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak "ETA aski da. Herriak du hitza" leloa zuen pankarta zabaldu zuten eta PP eta PSOEko ordezkariak "ETA ez, aski da" gaztelera zioena. Lehen taldean bildutakoek, PSEko zinegotziekin batera, manifestazio bat egin zuten herrian zehar konzentrazioaren ondoren. PP eta PSOEko ordezkariak udaletxe aurrean geratu ziren arren, haiek bilduta zeudenetako batzuk pankarta hartu eta hildakoaren denda aurrera abiatu ziren, bidean ETAREN aurkako oihuak egiten zituzten bitartean.

Biharamunerako elizkizuna eta manifestaldirako deia egin zuen Zumarragako Udalak eta bezperan PPk atera zuen pankartaren atzean, "ETA ez, aski da" zioena, egin zuten manifestazioa Zumarragara joan ziren agintari politiko eta herritarrek. Pankartaren erdi-erdian Manuel Indiano hildako PPko zinegotziaren neska-lagunaren alaba eta bi lehengusu joan ziren. Albo batera Juan Jose Ibarretxe EAeko lehendakaria eta bestera Aitor Gabilondo alkatea zeuden. Hainbat politikari ezagunekin batera, ehundaka herritar bildu ziren: guztira 3.000 pertsona inguruk osatu zuten manifestazioa.

Manifestazioa isila izan zen, eta tarteka txalo zaparradak entzun ahal izan ziren; esaterako, manifestazioa Manuel Indianoren dendako atarian gelditu zenean. Ordu erdiren buruan berriz udaletxeko plazara itzuli eta bezperan ezohiko osoko bilkuran onartu zuten agiria irakurri zuten: Valeriano Martinez PPko zinegotziak gaztelaniaz eta Aitor Gabilondo alkateak euskaraz.

Antiguan etapa amaiera izango du hilaren 15, 16 eta 17an izango den Goierriko Itzuliak

Aurten 23 urte baino gutxiago dutenez den Goierriko Itzulia hilaren 15, 16 eta 17an izango da. Iazko ekitaldiaren arrakasta ikusirik antolatzaileek etapen ibilbidean aldaketa gutxi egitea erabaki dute. Aurten ere etapa amaierak Zumarragan, Santa Barbaran eta Labeaga kalean izango dira, baina Zumarragako etapa Antiguan amaituko denez aurtengo itzulia txirrundularientzat gogorragoa izateaz gain, ikusleontzat are erakargarriagoa izatea espero da.

Partaidetzari dagokionez, afizionatu mailako Euskal Herriko eta Espainiako talde garrantzitsuenek Urretxura etorriko direla ziurtatu dute eta hauetaz gain, Sidneyko olimpiadetakoko prestatzen ari diren zenbait txirrundulariz osatua dagoen Itera-Lokosphinx talde errusiarra ere gure artean izango dugu. Talde honek estatu espainiarra aukeratu du olimpiadetakoko prestatzeko eta azken aste hauetan hainbat itzulitan garaipenak lortu ditu. Guztira 120 txirrundulari inguruk parte hartuko dute aurtengo Goierriko



Erabakigarria gerta daitekeen azken etapa Labeaga kalean amaituko da.

Itzulian, 18 taldetan banaturik.

Argi dago iaztik Goierriko Itzulia antolatzeari ekin dion antolatzaile taldea lan eskerga egiten ari dela eta ondorioz itzulia 23 urte azpikoentzat Euskal Herrian dagoen garrantzitsuenetako bihurtzeko bidean dela. Hori dela eta, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete itzuliaren antolaketa laguntzen dieten banakako, enpresa eta etapa amaieren babesle diren Urretxuko Aldapa eta bi herriotako udalei.

Pello Gonzalez Urretxuko alkateak Udalbiltzako batzorde iraunkorra utzi du

Pello Gonzalezek uko egin dio Udalbiltzako batzorde iraunkorrean zuen karguari, indarkeria dela eta "arrazoi etiko eta moralak argudiatuta". Urretxuko alkateak uztailean igorri zion gutun bat bere alderdiko -Eusko Alkartasuna- lehendakaria den Begoña Erraztiri, Udalbiltza uzteko zuen hartu zuen erabakiaren berri emanez. Udalbiltza Euskal Herria nazio gisa eraikitzeko helburu nagusiarekin sortu zen 1999ko irailean, Euskal Herriko 1.800 hauetsi inguruk erakunde nazional berria bultzatzeko hitza eman zutenean. ETaren atentatuen itzulerak Udalbiltzan eraginak izan ditu eta baita Pello Gonzalezek hartutako erabakian ere.

Urretxuko alkateak bere idatzian

esaten duenez, ETaren su-eten garaian "ilusio handiz" lan egin zuten Udalbiltzako kideek, baina hausturaren ondoren, giroa "nahasi" egin zen. "Egoera horretan ez dut ez indar, ez konbikzio politikorik EAren izenean erakunde horretan lan egiteko, zeina definizio falta duen eta, nire ustez, norabiderik gabe lan egiten duen", dio. Jarraitzeko "baldintza pertsonal etiko eta moralik" ez duela ikusten esan du Pello Gonzalezek. "Bizitzeko eskubidearen errespetuak du orain lehentasuna; indarkeria desagertuta, edozertaz hitz egin ahal izango dugu", dio. Ildo horretatik, hartu duen erabakia Urretxun EHrekin zuten gobernu ituna hautsi izanarekin koherentea dela uste du.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Antiguako XVII. musikaldia abian da

Irailarekin batera heldu zaigu musika klasikoaren garaia. Aurtengoa Antiguako Musikaldiaren XVII. ekitaldia dugu eta urtero bezala akustika paregabea duen Antiguako basilizan lehen mailako musikariez gozatzeko aukera dugu larunbatero arratsaldeko 7,30etatik aurrera. Aurtengo irailak bost aste-buru dituenez, bost musika kontzertu izango dira. Lehenengoa Piano Jazz Triok eskaini zuen jendez gainezka zegoen Antiguako basilizan. Piano Jazz Trio taldea Asier Polo violoncellojoleak, Pablo Martin Caminero kontrabaxujoleak, Noah Shaye bateriajoleak eta Marta Zabaleta pianojole legazpiarrak osatzen dute eta besteak beste Granados eta Fauré maixuen lanak eskaini zizkieten basilizan bildu ziren entzuleei.

Joan zen larunbatean Aurelio Sagasetak zuzentzen duen Iruñako katedraleko Musika-Kaperak kantaldia eskaini zuen. Koru hau Nafarroako musikagin-tzan dagoen instituziorik zaharrena da, 1206. urtekoak baitira sorrerako estatutuak. Azken urteotan susperraldi nabarmena izan du eta bere artxiboko partitura argitaragabeak transkribatu ondoren konzertu ugarien bidez penintsula, Europa eta EEBBetan barrena aurkeztu ditu. Zumarragan Johan Sebastian Bachen hainbat lan kantatu ondoren, XVI. eta XX. mendeak bitarteko euskal kantu erlijiosoak eskaini zituzten.

Larunbata honetan, hilak 16, Lituus Metal Boskotearen txanda iritsiko da. Talde hau Euskadiko Orkestra



Aurten ere, entzule ugari hurbiltzen ari da Antiguako basilizara.

Sinfonikoko kideek eta Donostia, Iruñea eta Irungo kontserbatorioetako irakasleek eratu zuten 1989an ganbara taldearen erreperitorioa erakusteko eta Antiguako XVI. eta XVIII. mendeak bitarteko musikagileen lanak eskainiko dizkigute.

Irailaren 23an 1997an euskal sortzaileak eta partitura berriak sustatzeko asmoz sortu zen Ensemble Aksax hirukotea izango dugu gure artean. Talde honek musika mistoaren kontzertuak eskaintzen ditu eta instrumentuen eta elektronikaren osmosia egiten dute. Aurtengo Antiguako Musikaldiko azkenaurreko kontzertua izango den honetan, mende honetako musikagileen lanak eskainiko dituzte.

Musikaldiari amaiera, hilaren 30ean, Jesus Maria Unanuek zuzentzen

duen Hondore Abesbatzak emango dio. Abesbatza hau Gipuzkoako hainbat abesbatzatan zebiltzan zenbait gaztek sortu zuten talde kantuan sakontzeko asmoz. Hondore Abesbatza erlijio musikan espezializatua badago ere, bere erreperitorioak beste alor batzuk ere hartzen ditu. Zumarragako kantaldian XVI. mendeko Gombert musikagilearen lanak eskainiko dituzte.

Aipatu bezala, aurtengo Antiguako Musikaldia duela bi larunbata hasi zen, baina beste hiru larunbata dituzue Antiguako basilizaren edertasunean eta bere baldintza akustiko bikainek lagundurik Euskal Herriko musikaldi nagusietako bat den honetaz gozatzeko.

Zumarragako Udalaren Trafiko Plangintzaren neurriak

Uztailaren amaieran Zumarragako udalak Trafiko Plangintzan erabakitako neurriak ezartzeari ekin zion.. Hala, lehenengo urratsa trafikoa arauak errespetatzen ez dituzten ibilgailuen jabeak ohartaraztea izan zen. Plangintza berberaren barne, abuztuaren bigarren erdialdean udal langileak seinale horizontalak margozen aritu ziren.

Joan zen astean zumarragarrek herriko trafikoak sortzen dituen arazo nagusiak, euren jatorria eta konponbideak

biltzen dituen txostena jaso zuten euren buzoietan. Zumarragako Udaltzaingoak prestatuturiko txosten honen arabera, trafiko arazo nagusiak autoa espaloian eta zama lanetarako eta ezinduentzat gordetako guneetan aparkatzeak sortzen dituzte.

Trafiko arazo hauen jatorria herriko zenbait gunetan dagoen aparkaleku gabezia, herri barruan mugitzeko autoa erabiltzeko dugun ohituran eta beste erabiltzaileenganako errespetu faltan datza. Udaltzaingoaren ustez aparkaleku

gehiago egokitzeaz gain, herri barruan autoa gutxiago erabiltzea eta oinezkoak eta gainontzeko erabiltzaileak errespetatzea beharrezkoak dira herriko trafikoaren egoera hobetzeko.

Trafikoarentzat kaltegarriak diren ohiturak saihesteko asmoz, irailaren 11n udaltzainak ibilgailuetan oharrak uzten hasi ziren, hauen bidez hilaren 18tik aurrera trafiko arauak errespetatzen ez dituztenei isunak ezartzeari ekingo diotela jakinarazten dute.

Merkataritza Euskalduntzeko Plana Aldapa Taberna



Mokadutxo finak egiten espezialista dira Aldapan eta hori nabaria da mostadore gainean dagoen pintxo aukera ikusita. Hogeita bost pintxo desberdin baino gehiago daude aukeran, klasikoenetatik hasi (patata-tortilla, urdaiazpikoa piperrekin...) eta berritzaileenetara (gula, txaka eta urdaiazpikoduna). Aldapan beti pintxo berriak egiten saiatzen dira. Bertakoek liburuetan topatutako errezetatik nahiz beraien kabuz asmatutakoekin probak eginaz pintxo berriak sortu eta bezeroi eskaintzen dizkigute, eta Aldapa tabernakoen esanetan gauza berriak probatzerako orduan ez omen gara atzera gelditzen.


Otartekoetan ere aukera zabala dago. Hauen artean ere badaude betiko klasikoekin ondoan gauza bereziak (mingaina, gazta eta patata bokadiloa esaterako).

Aldapako giroari dagokionez, musika aukeratzeko orduan euskal musika beti egon izan da. Arduradunaren hitzetan, jendeak zerbitzu euskalduna estimatzen duen adierazle nabarmena jendeak euskal musika eskatzea da. Aldapa Zintzo Mintzorekin batera beraien funtzionamendua euskaratzen ari da. Momentuz kartelak eta, paisaia, aldatzen ari dira. Aldaketa mantsoa da baina bezeroek estimatuko duten ziurtasunarekin ari dira.

URRET XU
OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labeaga 52-54 F. URRET XU
☎725682 ☎722292




MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**PLAZAOLA
ITURGINTZA**

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70




**ARKYPE
TABERNA**



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRET XU



Iker Antia

Egunon - amets on

Musu bat geltokian, ezpainetan. Usoak arriskua gainean ikusi arren, hegal egiteko pereza. Autobus baten ate hotsa, motorrak, jendearen marmarra eta haurra-
ren orruak. Asperen bat entzuten da. Haruntz edo honuntz baina noski geldirik ez, norabati joan behar, inora ez bada ere. Eseri... ez, ez zutitu. Ibili... ez, ez gelditu. Agur (malko bakar bat masailean), ikusiarte. Elkar berriro topatzea posible ote?


“Innovación, atrevimiento, vívela: Antena 3”, frantsesez ere entzuten dira zenbait hitz. Aurreruntz goaz, zuzen. Uda honetako zerurik grisena, Buñuel somatzen dut. Usoak ere Buñuelen oilo bihurtu dira; “Ten cuidado, que también las gallinas pueden vengarse”.

Hainbeste momentu gozoren ondoren
besarkada gozoren ondoren

laztan gozoen
musu...

hortzak usteldu eta odoletan dauzkat. Tantaka lepotik zehar bihotzera doa. Bihotza, odol putzuan itotzen, hil zorian dago. Ezpainartean dudan zigarroaren ke epelarekin berpiztu nahi dut. Lortu dudana, berriz, nire arimak asperen arabiarretan ihes egitea izan da. Uuuf... Hau askatasuna. Eskuartean dudan oilasko otartekoari beste horzkada bat eman diot. Garagardoari beste tragoska bat. Oilategiko oilarraren kantua entzun dut, berriro lo geratzeko agindua. Agur (malko-rik ez masailetan), ikusiarte...

Ai! Ezin dut lorik egin. Ohea jostorratzez betea dago. Letxuga hostoez estali ditut, zortzi kilo oilo pate zabaldu letxuga gainean eta eskarola hostoz berriro tapatu. Etzan eta ametsetik esnatzeko prest nago. Egunon.



BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050


Fax: 764050 20570 BERGARA

Nola bizi dituzu Santa Anastasiak? Zer da gehien atsegin duzuna?



Carmen García

Normalean gauetan umeak aitona-amonekin utzi eta koadrilakoekin ateratzen gara. Herri kirolak, dantzariak... ere ikusten ditugu, baina Euskal Jaia dut gustukoan.



Jon Ander Izagirre

Ormaiztegin bizi naizen arren, koadrila hemengoa dut eta batik bat gauzez ateratzen gara. Urretxuko jaiak Ormaiztegikoak baino gustukoagoak ditut.




Ricardo Pérez

Ahalik eta ekintza gehienetan parte hartzen dugu, gauzez zein egunez. Gehien atsegin dudana Gastronomi lehiaketa eta karrozak dira, bietan parte hartzen baitugu.



Ainhoa eta Oihane Lasa

Batik bat parranda egiten dugu, baina duela urte pare bat karroza egiten ere hasi ginen. Bestalde koadrilen eguna ere oso ondo egoten da.



Oier Plazaola

Jaiak batik bat gauzez bizi ditut, baina Euskal Jai egunean egunez ere kalera ateratzen gara. Karroza egiten genuen, baina lana zela eta utzi egin genuen.



Peio Aranburu eta Arantxa Beain

Aurten haurra izan dugunez ezingo gara gauzez atera, baina egunez berarekin aterako gara. Ea egunen batean aitona-amonekin uzterik dugun!

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa.

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbiza

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Herriko euskaltegietan matrikula

Iraila heltzearekin gainontzeko ikastetxeekin batera gure bi herriotako euskaltegiek, Udal Euskaltegiak eta Bisasti AEKk, euren ateak zabalduko dituzte. Bi euskaltegietako arduradunekin izan gara 2000-2001 ikasturterako euren eskaintza ezagutzeko eta informazio hau ondorengo lerroetan bildu dugu. Aspalditik euskaraz ikasteko edo zure euskara hobetzeko asmoz bazara, ziur Bisastin zein Udal Euskaltegian zure beharretara egokitutako eskaintza izango duzula. Anima zaitetz!

Udal Euskaltegian, ohikoa den bezala, euskalduntze, alfabetatze eta EGA ikastaroak dira eskaintza nagusia. Baina horretaz gain, ikastetxeekin elkarlanean transmisio kanpaina ere burutzen dute eskolaurreko ikasleen gurasoei zuzendurik. Klase hauetan guraso erdaldunek euren seme-alabek ikastetxeetan erabiltzen duten Urtxintxa sistema jarraitzen dute. Hala hizkuntza bera landu beharrean, euren haurrek eskolan irakurtzen dituzten ipuinak eta abestiak irakurtzen eta abesten ikasten dute. Honen helburua gurasoak sentsibilizatu eta seme-alabei laguntzea da, bestela euskara beraiantzat hizkuntza berria denez, guztiz arrotz sentitzen baitira. Honen bidez etxea eta ikastetxearen arteko lotura lortu nahi da eta hainbat guraso sentsibilizatzea ere lortzen da, eta batzuek euskalduntzerako urratsa ere ematen dute. Transmisio kanpaina bultzatzeko ikasturte hasieran bi udaletako euskara teknikariak ikastetxetara joaten dira eta eskolaurreko gurasoekin batera izaten dute kanpainaren berri emateko. Euskaltegian ikasturtearen arabera gurasoak talde ezberdinetan banatzen dituzte, bakoitzean euren seme-alabek material ezberdinarekin lan egiten baitute.

Hilabete honetan hasiko den ikasturtea transmisio kanpainaren hirugarrena izango da eta bere arrakasta ikusirik, euskaltegiko arduradunak alfabetatze ikastaroak bultzatzeko ere udala eta ikastetxeekin batera lan egitea pentsatzen ari dira, gurasoen esparrua erakartzeko asmoz. Izan ere, azken ikasturtean alfabetatze gelan sei lagun soilik izan dira eta Urretxun eta Zumarragan ia 20.000 biztanle garela kontuan izanik, Udal Euskaltegikoek oso ikasle gutxi direla uste dute. Honek arrazoi ezberdinak ditu euskaltegikoen iritziz: zenbait euskaldunzaharrek konplejuak omen dituzte eta beste batzuek, berriaz, ez omen dute euren burua alfabetatzeko beharrik ikusten.

EGAk ikastaroek, ordea, arrakasta handiagoa dute eta urtero ikasgela pare bat izaten dituzte. Ikasgela hauek euskaltegira jada alfabetaturik zein euskaltegian euskaldundu eta alfabetatu direnek osatzen dituzte.

Bestalde, urte hauetan guztietan Udal Euskaltegiek tabernarien, dendarien, jubilatuen... mundua jorratu dute lantalde ezberdinak euskaldundu eta alfabetatzeko asmoz. Egun lan mundua jorratu behar dela ikusten dute. Urretxun eta Zumarragan oraindik ez da alor hau jorratu, baina etorkizunean honi aurre egin beharko diotela uste dute. Horretarako langileei eskaintza erakargarria egin beharko zaiela uste dute eta ez lanorduetik kanpo euskaltegira pare bat orduz joatea eskatu. Irtenbidea lantokietako arduradunekin akordio batera iristea eta lanorduetako bat euskaltegian ematea izan daiteke Udal Euskaltegiko arduradunen ustez. Lan munduan euskararekiko senti-

bilizazioa eta tipologia euskalduneko lantokietan, gutxienez, euskaraz hitz egiteko ohitura lortu beharra omen dago.

Dena den, Urretxu eta Zumarragan erronka nagusia kalean euskal giroa sortzea da. Izan ere, kalea eremu nahiko erdalduna da gure bi herriotan eta euskaltegitik ateratzen diren ikasleek ere kalean erdaraz aritzeari ekiten diote.

Bukatzeko, Udal Euskaltegikoek euskaltegira informazio zabalagoaz galdetza beldurrik gabe hurbiltzera animatu nahi dute jendea. Udal Euskaltegian euskara giro jatorrean ikasteko aukera izango duzue, norberaren tipologiaren arabera ikasgelan. Izan ere, euskaldunzaharrek, eskolaurreko ikasleen gurasoek edo EGA titulua atera nahi dutenek bere ezaugarri egokitutako klasea aurkituko dute. Irailaren 4tik aurrera matrikulazio epea zabalik dago eta Udal Euskaltegikoekin harremanetan 943 72 33 10 telefonoan jarri zaitezke.



atzeko epea zabalik da



Bisasti AEK euskaltegiak joan den ikasturtean zabaldu zituen bere atea denboraldi batean itxirik egon ondoren berriro. Leire Cristobale eta Ainhoa Osinalde izan ziren iaz Zumarragako euskaltegiaren ardur hartu zutenak eta oso gustura ageri dira lehenengo ikasturte honek eman dituen emaitzekin. Hasieratik EGA, alfabetatzea eta euskararen hobekuntza ikastaroak ere eskaini dituzten arren, lehen urte honetan euskaraz ikasi nahi duten ikasleez osatutako bi gela izan dituzte. Ikasletako batzuk hutsetik hasi dira eta besteak 4. urratsean. Martxoan inguruan Ezkio-Itsasotik deitu zieten, ea bertan klaserik ematerik zuten eta bertan ere zenbait ikasle euskaraz ikasten aritu dira AEKK bidalitako beste irakasle baten laguntzarekin.

Zumarragan aritu diren ikasle guztiak langileak dira, baina ez dira euskaltegi- lanak behartuta hurbildu, euren inguruan euskaldun jendea zutela eta euskaraz ikasteko beharra ikusten zutelako baizik. Langileak izanik, klase orduak lan ordutegitik kanpo eman dituzte euskaltegian, arratsaldeko 7etatik iluntzeko 10etara. Ahal duten guztietan ikasleak bi herriotan euskaraz antolatzen dituzten ekintzetara eramaten eta herritarrak euskaltegiara eramaten saiatzen dira. Honela aurrean ikasleak Antzerki Asteko antzeppen bat ikusten izan dira eta diapositiba emanaldi bat ere izan dute euskaltegian. Izan ere, Bisastikoen xedea ez da euskaraz irakastea soilik, baita ikasleak euskal kultura eta giroarekin harremanetan jar-

tzea ere.

Leire eta Ainhoa pozik daude, ikasleek ikasturte honetan gustura aritu direla adierazi baitiete eta denek urrian hasiko den ikasturte honetan jarraitzeko asmoa azaldu baitute. Ikasleek klaseetan gramatika modu arinean irakastea, mintzaira solasaldien bidez lantzea eta kalera ateratzea bereziki eskertu omen dute. Bi irakasleek, berriz, ikasleek meritu handia dutela uste dute, lanordua amaitu ondoren euskaltegiara hiru orduz joateko borondatea erakutsi baitute. Hala ere, Ainhoa eta Leireren ustez, ez da dena baikorra "gure bi herriotan euskararen ezagutza eta erabilera mailak ezagututa, jende gehiago gerturatu beharko litzateke euskaltegiara eta euskaraz dakigunok ikasten ari direnei gehiago laguntzen saiatu beharko ginateke".

Urrian hasiko den ikasturteari begira, Bisastikoak uztaillean bi herriotako zenbait dendari erdaldunengana joan eta euren lanbidean lagunduko dien ikastaroa eskaini diete. 12 dendari ikastaroan parte hartzeko prest agertu dira eta hauei Gabonak bitartean eguneroko lanean euskaraz jarduteko balioko dien 50 orduko ikastaroa eskainiko diete. Honetaz gain, kalea eta euskaltegiaren arteko lotura estutzen saiatuko dira, ikasleak gune euskaldunetan murgildu eta euskaraz egin dezaten.

Bisasti AEK euskaltegikoez irailaren 4ean zabaldu zuten matrikulazio epea eta informazio gehiago nahi baduzue bertako 943 72 24 57 telefonora deitu dezakezue.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

<p>HAR GOR ILEAPAINDEGI MIXTOA Nekolalde, 3 baxua ☎ 943 72 44 42</p>	<p>HARGOR Artisautza - arropak - opariak Nekolalde, 1 ☎ 943 72 56 58</p>
---	---

	<p>BAPRI ANIMALIADENDA Txoriak, arrainak, katuak, dordokak</p>
<p>Urdaneta, 3</p>	<p>☎ 72 61 13 ZUMARRAGA</p>

	<p>Legazpi, 5 ☎ 943 726274 ZUMARRAGA</p>

Gazteleku berriko lanak bide onean dira

98ko San Juanen ondoren Gazteleku zaharra bota zutenetik, bi urte baino gehiago pasa dira eta denbora honetan guztian Urretxuko Urolako trenaren geltoki zaharrean joango den Gazteleku berriko lanak astiro baina geldiuine handirik gabe aurrera egin dute. Hasieratik Gazte Asanbladako gazteek oso argi izan zuten, Gazteleku berriaren egokitze lanak eurek burutu behar zituztela eta honek lanak astiro xamar joatea ere ekarri du zenbaitetan.

Dena den, udan jendeak denbora libre gehiago duenez eta lanerako giroa egokiagoa denez, gazte talde handia bildu da Gaztelekun lan egiteko prest eta uztailean eta abuztuan geltoki zaharraren berritze eta egokitze lanak ziztu bizian jo dute aurrera. Gazte hauetako asko sekula eraikin baten txukuntze eta egokitze lanetan aritu gabeak ziren arren, iaioak ziren lagunei esker azkar ikasi dute.

Uda heldu aurretik teilatu berria zen Gaztelekun ordurarte eginiko lan nagusia eta azken bi hilabete hauetan barrualdeko lanei eta paretan pintaketari ekin diote gazteek. Egoitza berriak dituen bi pisuetan gelen antolaketa aldatu beharra

zegoen eta horretarako paretak guztiak bota dituzte eta berriak jasotzeari ekin behar diote. Beheko solairuan tabernako barra eta eskenatokia joango dira eta goialdean ekintza zehatzetarako soilik zabalduko diren gela ezberdinek osatuko dute. Bertan

sukalde bat, bilera gela, informatika gela eta zine gela egitea erabaki dute gazteek asanbladan. Beheko solairutik gora igotzeko eraikinaren kanpoaldean, frontoira ematen duen paretan, igogailu bat egin behar dute.

Uda honetan Gazteleku berriaren lanean aritu diren gazteen esanetan, oso gustura ibili dira. Izan ere, erabakiak denen artean hartzeak eta aginduak emango zituen inor ez egoteak laneko giro aparta sortzen lagundu du. Lanean 15 lagun inguru aritu dira eta kexa bakarra dute: neska gutxi hurbildu direla lan egitera. Hori dela eta, neskek ere Gaztelekuko lanetan aritzera animatu nahi dituzte.

Jende asko Gazteleku berria zabaltzeko prest noiz egongo den galdezka ari zaie eta Gazte Asanbladakoek egokitzapen lanek urtebete gehiago gutxienez iraungo dutela uste dute. Lanak lehenbailehen bukatzeko bide bakarria ahalik eta jende gehien biltzea da, eta gainera denontzat izango den Gaztelekuk denon partaidetza behar!





Alaitz, festetarako prestatzen ari al zara? Ea orduan ere horren formal ikusten zaitugun. **Zorionak!**



Alazne, elur garaia hurbilago dela eta zu izan-go zara uda amaitzeaz gustura dagoen bakarra! **Zorionak!**



Amaia, noiz topatu behar dun hire bihotzeko mutil galaiara? **Zorionak** eta segi beti bezain saltsera!



Ander, perretxi-koi bila al zabilzt! Horren konzentratuak jarraitzen baduzu saskia berehala beteko duzu!



Andres, oraingoan ere norbaitetzatrufatzen ari al haiz? Hi haiz hi adarjolea! **Zorionak** eta eutsi umore onari!



Arantzazu, hori da hori mototsa! Isabel Pantoja berak ere inbidia sentituko luke ikusiz gero! **Zorionak!**



Asun, oraingoan ere argazkilaria despidatu xamar harrapatu zaitu. Ea arreta pixka bat gehiago jar-tzen duzun!



Jon, udan iloba pasiatzeko astirik hartu al duzu? Zuri tokatzen zaizunerako entrenatzen hasi beharko zara...



Batirtze, udako festetan ere txupaxusa ahoan zenuela ibili al zara? Beste zer edo zer ere sartuko zenuen...



Begonya, tutik ere ulertuko ez duzun arren, hona hemen gure zorionik beroena!



Consuelo y con paredes... halakoa izatearekin konformatzen gara behingoz gurasoen etxetik joateko! **Zorionak!**



Elizabete, kontatuz guri ere txiste, ea zuri bezain barre-garria iruditzen zaigun! **Zorionak** eta ondo ibili!



Esteban, nori zuzendua zikok begirada "pikaro" hori? Hi haiz hi pajaroa! **Zorionak** eta ondo ibili!



Garikoitz, nabari duk bai argazkian ateratzeko irrikitan hengoe-la! **Zorionak** eta alaitu ezak aurpegia motel!



Igor, zer demontre egiten duk hor? **Zorionak** eta segi ezak horren irrifartsu!



Iñaki, ondo pasa urtebetetze eguna, baina etzazu gehiegizko parrandarik egin! **Zorionak!**



Itziarrek bezalako irrifarre dizitirsua izan nahi baduzue, badakizue, goxoki gutxiago eta sagar gehiago! **Zorionak!**



Itziar, hori da hori alaitasuna! Nabari da bai Urretxuko jaiak gertu ditugula! **Zorionak** eta ondo pasa!



Jaime, burumakur xamar ikusten haugu, motel! Ea festetan zerbait alaitzen haizen! **Zorionak!**



Jaione, ea hurrengoan irrifarre naturalagoa eskaintzen diguzun, neska! **Zorionak** eta ondo ibili!



Jesus, batzuek oporrez goza dezaten besteek lanean jardun behar! Ez zegok eskubiderik! **Zorionak!**



Jesus, argi ibili katekistekin, konturatzerako eliza merendaleku bihurtuko dute eta! **Zorionak!**



Jon, Siberiara joan al zara oporretara? Hainbeste erro-pa soinean jantzita ez zenuen ez hotzik pasako!



Jone, alaitu ezazu aurpegia neska! Eskolara itzultzea gogorra da, baina lagunekin izateko aukera izango duzu.



Jon Mikel, ordenagailuaren azken barrabaskeriak zur eta lur utzi huela zirudik! **Zorionak!**



Joseba, altxa ezazu burua, bai, aurrealdean dituzun bi buruhandiek estali ingongo zaituzte eta! **Zorionak!**



Josu, zu ere arrega bezain saltseroa al zara? Ez da pakerik izango zuenean... **Zorionak!**



Joxepa Anttoni, hainbeste arlote artean fundamenteu pixka bat duen bakarra izango zara! **Zorionak!**



Juan Mari, ea egunen batean argazkidentatik pasa eta argazki berri bat ateratzen duzun! **Zorionak!**



Kristina, kapela buruan eta ibili munduan! Uda honetan Kenian izan al zara safary batean? **Zorionak!**



Laura, argazkian dirudien bezain txintxo al zara? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Leire, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi orainarte bezain irrifartsu. **Zorionak!**



Lierni, hori da hori irrifarrea! Zorionez gainezka zaudela dirudi... Umorez hartu duzu urtebete zaharragoa izana...



Lourdes, uda ospitalean galdu baduzu ere, itxuraldaketa onerako izan dela onartu beharra dago! **Zorionak!**



Luis, bapo jan eta edango duzu zuku... ez duzu batere itxura txarrik behintzat. **Zorionak** eta ondo segi!



Maider, nora edo nori begira ote zeunden argazkilaria horren arreta gutxi jartzeko... **Zorionak!**



Maite, begirada galdua eta pentasakor ikusten zaitugu... zertan ibiliko ote zinen uda honetan! **Zorionak!**



Manolo, esaiotzu argazkilaria hurrengoan hobeto enfokatzeko! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Marcos, ez al zizuten argazkian ateratzen uzten? Ez egin kasurik eta pasa aurrera! **Zorionak!**



Maria Jesus, udako kantua atera zenuenetik lehenengoz zure berri dugu! **Zorionak** zuri eta zure txorie!



Mikel, ikasturtea hastea gogorra da, baina alaitu ezazu aurpegia motel! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Mikel, aldamenean neska jarri zaitzula eta gorritu egin al zara? **Zorionak** eta eskaini iezaiozu irrifarre bat sikira!



Mikel, zuk ere "biba er Beti manke pierda!" diozu ala taldez aldatu al duzu jada? **Zorionak!**



Naiara, eskolara bueltatzea ez da oso gustukoa, baina alaitu ezazu aurpegi hori neska! **Zorionak!**



Nerea, hiru anai-arreba eta hirurak urrian jaiok! gurasoek ez zuten kalefazio gastu handirik... **Zorionak!**



Olatz, ez dakigu oporretara nora joan zaren, baina bertako eguzkiak mesede egin dizula argi dago! **Zorionak!**



Olga, Portugalera joan eta lagunei toailarik ez ekartzea ere! (Hotelean ostutakoak sikira...) **Zorionak!**



Otzan, urtero zoriontzen haugu eta oraindik ez zekiagu hire ezizen xelebre horren jatorria! **Zorionak!**



Ezin al zineten pixka bat gertuago jarri argazkian ateratzeko? Juxtu-juxtu sartu ahal izan zaituztegu bioi batera! Ramon, "arritatu" hadi pittin bat gehiago emazteari! **Zorionak Ramon eta Arantxa!**



Raket, oporretatik lanera bueltatzea gogor xamarra izaten da, baina umore hobez hartu ezazu neska!



Saioa, zu bai mototsak egiten iaioa! **Zorionak** eta ea hurrengoan irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun!



Unai, zertan ibili zara oporretan? Hori da hori irrifarre ekarri duzuna... **Zorionak** eta segi horren irrifartsu!



Ormazabal, urteko egunik onena aukeratu huen jaitzeko! Lasaitu hadi, mendeakuak ez dik inora eramango eta!



Ez dakigu muti-lak zure argazkia izango duen, badaezpada hona hemen bat karteran gorde dezan! **Zorionak!**

SANTA ANASTASIA

IRAILAK 14, OSTEGUNA

20:00 - **Hitzaldi-erakusketa: "Makailaua"**, Akelarre elkartearen (Akelarre elkarteak antolatutako Hamabostaldi Gastronomikoaren barruan).

IRAILAK 15, OSTIRALA

Goierriko XIX. Txirrindulari Itzulia.

IRAILAK 16, LARUNBATA

Goierriko XIX. Txirrindulari Itzulia.

10:00 - **Santa Anastasietako II. Xake Ihardunaldiak.**

Ederrena pilotalekuan. Izena ematea: aldez aurretik Kultur Etxean; egunean bertan, frontoian, 9:45ak baino lehenago.

13:00 - Herriko taberna eta jatetxeen arteko **"I Pintxo Lehiaketa eta ardo dastaketa"**, Areizaga-Kalebarren enparantzan.

TXALAPARTA EGUNA (Zuhaitzaren Soina Kolektiboak antolatuta)

9:00 - **Diana** mendi tontorretan.

12:00 - Iparragirre Plazan, **Txalapatarien deia**. Ondoren, **poteo herrikoa** trikitilari, albokari eta erraldoiekin.

19:00 - **Sagardo dastaketa** eta **txistorrada**, Avenidan eta dohainik. Girotzeko txalapatari eta trikitilarien laguntza izango dugu.

22:30 - Iparragirre Plazan, **Txalaparta jaialdi erraldoia** honako partehartzaile hauekin: Mendaraz Anaiak (Urretxu), Txukunak (Gasteiz), Zuhaitzaren Soina Kolektiboa (Urretxu), Zugarramurdi (Sestao), Uharteko Txalaparta Tailerra eta Hernaniko Txalaparta Eskola.

Laguntzaileak: Jon Maia eta Lurra Dantza Taldea. Aurkezlea: Andoni Salamero.

Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, Aldiri Kiroldegian izango litzateke.

IRAILAK 17, IGANDEA: JUBILATUAREN EGUNA

12:15 - Jubilatua eta Udal Korporazioa elkartuko dira Egoitzan; Txistulari Taldeak lagunduta, meza entzutera joango dira.

12:30 - **Meza** Martin Deunaren Eliza Nagusian.

13:15 - Urretxu eta Zumarragako **"Goizalde"** jubilatuen elkarteak abesbatzaren kontzertua San Martin de Tours elizan.

Ondoren **"Lurra" Dantza Taldearen saioa** Iparragirre Plazan (euria eginez gero pilotalekuan egingo da ekitaldi hori).

14:00 - **Bazkaria** Ederrena pilotalekuan. Menua: Marmitakoa, oilasko erre entsaladarekin eta sagarrezko pastela.

16:00 - **Kiñu orkestak** bazkalondoa alaituko du, eta jubilatuek hainbat iharduera egingo dute. Gainera opariak zozketatuko dira.

18:30 - **Agurra**, Agur Jaunak abestuz.

II. HERRI ARTEKO EGUNA ("Mairi" Emakumeen Elkarteak antolatuta)

Areizaga-Kalebarren plazan jarritako erakustokietan Andaluzia, Gaztela-Leon, Extremadura, Galizia, Errioxa eta Euskal Herriko informazioa turistikoak topatu ahal izango da. Bertan herri hauetako produktuak dastatzeko aukera izango dugu. Goizez, 11etatik 14:30ak arte. Arratsaldez, 5etatik 9ak arte. Arratsaldeko 18:00etan Urretxu-Zumarragako Albero talde andaluziarraren ekitaldia.

IRAILAK 19, ASTEARTEA

20:00 - **Hitzaldia: "Sukaldaritza eta komunikabideak"**, Urretxuko Udaletxeko Areto Nagusian.

IRAILAK 20, ASTEAZKENA

20:00 - Iparragirre Plazan, **"Santa Anastasia Jaiak orain dela 10 urte" bideo emanaldia** (Euskal Jaia taldeak antolatuta).

IRAILAK 21, OSTEGUNA

20:00 - **Hitzaldi-erakusketa: "Idiazabal gazta"**, Akelarre elkartearen.

20:00 - Iparragirre Plazan, **"Santa Anastasia Jaiak 1999" bideo emanaldia** (Euskal Jaia taldeak antolatuta).

IRAILAK 22, OSTIRALA

18:30 - Mundo Mejor, San Martin eta Pagoetatik **Urretxuko erraldoi eta buruhandiak** ("Aldiri K. E: konpansa") aterako dira. Auzo bakoitzean txokolatada bat egingo da eta ondoren hasiera emango zaio ibilaldiari trikitilari eta dultzaineroen laguntzaz, Iparragirre Plazan amaituko delarik.

19:00 - **Udal Musika Tailerraren eta Txistulari Elkartearen kalejira** gure kaleak girotzeko.

Ordu berean areto barruko futbola, Aldiri Kiroldegian.

20:30 - Iparragirre Plazan: **Alkatearen pregoia, kainoiaren danbada eta ikurriñen jartzea** Udaletxeko balkoi nagusian.

Trikitilariak, txistulariak, erraldoi eta buruhandiak, Udal Musika Tailerra eta "Biznietos de Celedón" txaranga elkartutako jendea dantzan jartzeaz arduratuko dira. Ondoren, "Biznietos de Celedón" txaranga Urretxuko kaleak girotzen ibiliko da goizalderarte.

23:00 - **Urretxuko Musika Tailerreko Bandaren eskutik, dantzaldia** Iparragirre Plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Ederrena pilotalekuan.

00:00 - Gernikako Arbola Plazan **Urgabe taldearekin dantzaldia**. Eguraldi txarra eginez gero, Ederrena pilotalekuan izango da.

Ordu berean, txosnatan rock kontzertua.

JAIK 2000

IRAILAK 23, LARUNBATA

- Goizean zehar Idiazabalgo gazten Lehiaketa eta sagardo dastaketa, Areizaga-Kalebarren Plazan. Akelarre Gastronomi Elkarteak antolatutik.
- 9:00 - Avenida berrian, **Abelgorrien lehiaketari hasier emango zaio.** "Secundino Esnaola" Musika Ikastetxeko trikitilariak bertan izango dira giroa alaitzen.
- 11:00 - **Urretxuko erraldoi eta buruhandiak** Pagoetatik irtengo dira Iparragirre plazaraino etortzeko.
- 12:00 - **Goming-a** Lizeoko plazan. Ordutegia: goizez 12etatik 2etara, arratsaldean 6:30etatik 9:30etara eta gauean 11:30etatik 2:30etara.
- 12:00 - Egun osoan zehar luzatuko den **herriarte**ko "24 orduko irratsaioa" Santa Barbaran LUZ irratizale taldeak antolatuta.
- 12:30 - **Ganadu lehiaketaren sari banaketa** eta jarraian bertsoariaren saioa.
- 13:00 - **Aizkolariaren erakustaldia** Gernikako Arbola Plazan. Anjel Arrospeide aizkolariaren ahalegina, 3 metroko enborra ebakitzen.
- 16:30 - **Haurrentzako dantzaldia**, "Biruri Sound" disk-jockeyaren martxarekin, Zubimusu plazan.
- 17:00 - **Haurrentzako txokolatada.**
- 15:30 - Santa Barbarako bidean, **plater tiraldia**. Izen ematea, arratsaldeko 7ak arte. Entrenamenduak, goizeko 10etatik 1ak arte.
- 18:00 - Herriarte XIII. Folklore Jaialdian parte hartuko duten "Esbart dansaires de Sant Joan de Vilatorrada" (Bartzelona) eta "Alegrias de Tiembles" (Tembleque-Toledo) taldeen desfilea.
- 18:00 - Ederrena pilotalekuan, **XXV. Gastronomi Lehiaketa** hasiko da. 9etan sari banaketa eta afaria. Afalondoa Akelarre txarangak alaituko du.
- 19:00 - Gernikako Arbola enparantzan, **Herriarte XIII. Folklore Jaialdia**.
- 23:00 - Iparragirre Plazan, **txistularien kontzertu nagusia**. Eguraldi txarra eginez gero, Aldiri Kiroldegian.
- Goizeko 3 t'erdia** arte Akelarre txaranga kaleetan zehar arituko da.
- 00:30 - Gernikako Arbola Plazan, **dantzaldia Oropendola orkestrarekin**.
- 7:10 - **Zezenak**, Urola geltoki zahararen ondoko plazatxoan.

IRAILAK 24, IGANDEA: EUSKAL JAI

- 10:00 - **Txistulari, trikitilari eta dultzainero taldearen kalejira.**
- 11:00 - "Euskal Jaia eguna argazki konzentrazioa" Ekitaldi honen bitartez Urretxuko Euskal Jaian egun bat igaro nahi duten argazkizale guztiak bildu nahi dira. Egun honetan izango diren jai-ospakizunek osatuko dute gai zerrenda. Izen ematea eta informazioa Urretxuko Kultur Etxean.
- Goizeko Euskal Jaialdia Aldiri Kultur Elkarteak eta Artisanu Batzordeak antolatutik:**
- 11:00 - Lizeoko enparantzan Tolosa, Beasain, Andoain, Ordizia, Etxarri, Legazpi eta Urretxuko **erraldoiak** bilduko dira, gero kalejiran Iparragirre enparantzaraino joateko, bertan balsa dantzatuko dute eta kaleak alaitzen jarraituko dute.
- 11:30 - Iparragirre plazan, sagardo eta txistorra dastapena. Herriko trikitilariak, dultzaineroak, bertsoariak, abeslariak, txalapartariak, dantzariak eta erraldoiek herria girotuko dute eta ekitaldi berezi bat eskainiko dute. Uztarrien erakusketa ere izango da.
- 12:30 - **Meza Nagusia** Martin Deunaren Eliza Nagusian.
- 17:30 - **Karrozen ibilaldiaren** irteera Mugitegi industrialdetik.
- 18:30 - Gernikako Arbola Plazan, **Urretxuko txalapartarien eta Zuhaitzaren Soina Kolektiboaren saioa**.
- 19:15 - Ibilaldiko lehenengo karrozak Gernikako Arbola Plazan sartzen hasiko dira. Denak plazara heldu ondoren, **epaimahaiaren erabakia** jakinaraziko da.
- 23:00 - Gernikako Arbola Plazan, **dantzaldia Suan Blai taldearen eskutik**.
- 23:30 - Zintzo-Mintzo taldeak antolatuta, **Euskararen aldeko kandela piztea**, Gernikako Arbola Plazan.
- 00:00 - "Bedaioko ingurutxoak", dantza herrikoa, Gernikako Arbola Plazan.
- Ondoren, dantzaldiak** jarraituko du goizaldeko 3:30ak arte.

IRAILAK 25, ASTELEHENA: KOADRILEN EGUNA

- 12:00 - **Koadrilentzako zezenak eta haurrentzako poniak**, Urolako zezen-plazatxoan, "Iraunkorrek" txarangaren musikaz alaitutik.
- 11:30 - **Haurrentzako jolasak** Iparragirre Plazan, eguerdiko 2ak arte: Gaztelu puzgarriak, gargantua, etab.
- Ondoren**, "Iraunkorrek" txaranga eta koadrilen musika alaiak lagundurik, **herri kalejira**.
- 14:30 - **Herri bazkaria** Avenidan.
- 16:00 - **Haurrentzako jolasak**, Iparragirre Plazan, arratsaldeko 6ak bitartean.
- 17:00 - Bazkarian erabilitako mahaia jasoko dira.
- 18:00 - Gernikako Arbola Plazan **herri kirol jaialdi ikusgarria**.
- Kaskara jokua:** Urretxuko Larrea anaiak Zumarragako Perez Bastarrika anaiei aurka.
- Harrijasotzaileak:** Izeta III.k eta bere semeak herri ezberdinekin beren saioak egingo dituzte.
- Aizkolariak:** Olasagasti eta Aranbarri (Elorriaga) bikotea Arrospeide eta Azurmendiren aurka.
- 18:30 - "Petrikiloak" **haurrentzako antzerkia**, "Hankagorri" taldearen eskutik Zubimusu enparantzan.
- 21:00 - **Kantu-afaria** Avenidan musikariaren laguntzaz, Zintzo-Mintzo elkarteak antolatuta.
- 23:00 - Gernikako Arbola Plazan, **dantzaldia Egan taldearen eskutik**.

IRAILAK 30, LARUNBATA

Urretxuko IX. mendiko bizikleta proba.

CHIARA

**Etzerako lantzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18


Madaia plazoletan
20700 URRETXU

TABERNA



JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



**Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura**

Labeaga 31 ☎ 943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

Pirinioak txirrinduz

Badira urte batzuk Aitzol Jauregiri, Haritz Arbizuri, Mikel Artolazabali eta Aitor Galdosi bizikleta zaletasuna piztu zitzaientetik eta ordu-tik hona, urtero udaberria aldean eguna luzatzen hasten denean, astean bizpairu egunetan ateratzen dira. Azken urteotan oporrak ere bizikleta ganean igarotzeko ohitura hartu dute eta bai Santiago Bidean baita Irlandan pasatu dituzte oporraldiak. Aurten ere paraje berriak ezagutzeko bizikleta erabiltzea pentsatu dute, baina erronka gogorragoa jarri diote euren buruari: Geronako kostaldera trenez joan eta Pirinioak puntatik-puntara zeharkatu ondoren etxeko atariraino bizikletaz iristea. Horretarako lagun batek utzitako liburuan ezarritako egitaraua jarraitu dute eta hamabost egunetan 1.140 kilometro egin ondoren etxean bueltan dira.



Mikel, Aitor, Aitzol eta Haritz Peyresourde mendatearen gainan.

Nolatan hasi zineten bizikletan ibiltzen?

Aspaldi hasi ginen mendi bizikletan noizean behin ibiltzen, baina urte batean Santiago Bidea egitea erabaki genuen eta ordutik ez diogu ibiltzeari utzi. Koadrilako zenbait lagun hasi ginen elkarrekin ibiltzen eta orain koadrilako beste batzuk ere animatu behar direla dirudi. Dena den, ez gara urte guztian bizikletatik jaisten ez diren horietakoak, normalean eguna luzatzen hasten denean hartzen dugu bizikleta eta uda ondoren utzi egiten dugu.

Zer irteera egin dituzue orainarte?

Duela urte batzuk Santiago Bidea egin genuen eta iaz Irlandan izan ginen. Aurten ere oporretara bizikletaz joateko asmoa genuen eta herriko zenbait lagunek Pirinioak bizikletaz zeharkatu zituztela genekienez, gu ere animatu egin ginen. Beraiengana informazio bila joan ginenean

bidaia hau egitea merezi zuela esan ziguten eta otsailen jada erabakia hartua genuen.

“Gogorrena mendateak igotzea izan da, noski.

Tourmalet eta San Martingo Harria bereziki gogorrak iruditu zaizkigu”

Asko prestatu al zarete?

Lehenengo irteera sagardotegi garaian egin genuela gogoratzen dugu, ondoren sagardotegira joan baikin. Orduetik astebururo ateratzen hasi ginen eta ordua aldatu zutenetik astegunetan ere

aritu gara. Dena den, guztira mila kilometro baino zertxobait gehiago besterik ez dugu egin eta nahikoa izan da. Nik 300 kilometro soilik egin ditut (Haritz) joan aurretik, baina urtean kirola egiteko ohitura dut.

Nola prestatu zenuten bidaia?

Laneko bati Pirinioak txirrinduz zeharkatzeko ibilbidea dakarren liburua eskatu nion (Mikel) eta bertan azaltzen den egitaraua ia goitik-behera jarraitu genuen. Bestalde, bidaia hau egina zuten lagunek ere informazioa eskaini ziguten. Beharrezko guztia bizikleta ganean eraman behar genuenez, beharrezko arropa, kanpin-denda eta elikagai energetikoak soilik sartu genituen alforjetan; bakoitzak 12 bat kilo.

Nola antolatzen zenuten eguna?

Goiz jeiki eta ondo gosaldu ondoren, bizikletaz 70 bat kilometro egiten genituen egunero eta arratsaldeko 4ak inguruan etapa amaitzen genuen. Bidean elikagai energetikoak soilik jaten genituen, baina helmuga herrira heltzean, kanpinean lekua hartu ondoren, merienda oparoa egin eta gauero jatetxe edo tabernaren batean afaltzen genuen. Kanpinetan lekua topatzeko ez dugu arazorik izan, baina kanpin pare batean erreka alboan, uholdeen arriskua zegoela jartzen zuen kartelaren ondoran, jarri gintuzten. Beste gau batean jabea-ri baimena eskatu eta zelai batean jarri genuen kanpin denda.

Euriak arazorik sortu al dizue?

Arazoren bat izan dugu, baina normala da, ezin baita Piriniotan 15 eguntan jarraian eguraldi ona egitea eskatu. Andorran geundela, gauean sekulako zaparrada izan zen eta denda barrura ura sartu zitzaigun. Aitzolek hankak plastikozko poltsa baten barruan sartu eta potzu gainean zituela lo egin behar izan zuen. Bestalde, Bonaiguan nahiko eguraldi petrala tokatu zitzaigun, kazkabarra ere izan zen, eta bizikleta gainean majo busti ginen. Gau hartan hostel batera joatea erabaki genuen eta arropa hurrengo egunerako lehortzea lortu genuen.

Gauetan ez al zenuten parrandaren bat egiteko tentaziorik?

Frantzia aldean ez zuen gogo handirik ematen, ez baitzegoen batere girorik. Isaban izan ginenean, berriz, tentazioa izan genuen baina bertan lo egiteko lekurik aurkitu ez genuenez alboko herri batera joan behar izan genuen eta akabo tentazioa! Dena den, azken gaua Hondarribian igaro genuen eta bertan bidaiaren amaiera ospatzeko aukera izan genuen.

“Ez da sekulako prestaketa behar honelako bidaia egiteko, edonori gomendatuko genioke bidaia hau”

Zer izan da gogorren egin zaizuena?

Orokorrean aldapa guztiak gogorrek egiten dira, baina hori bizikletan ibiltzearen nekeak dira. Dena den, Tourmalet eta San Martingo Harria bereziki gogorrek iruditu zaizkigu. San Martingo Harrian zulatze pilo bat izan genituen gainera eta nazka-nazka eginda bukatu genuen. Larrau alde bigunetik igo genuen eta eskerrak, alde gogorra jaisteko ere bildurgarria baitzen!

Gertaera berezirik bizi al duzue?

Gure ibilbide berbera egiten ari


ziren Lasarteko batzuekin sarritan topatu ginen, nahiko xebreak beraiek. Lo aurkitzen zuten edozein aterpetan egiten zuten, butanillo eta guzti joan ziren eta bide erdian atsedenaldi hartzen zuten bakoitzean denetatik erretzeko ohitura zuten. Bestalde, Frantzia aldean jendeak alforjak jarri eta bizikletan bidaiatzeko hemen baino ohitura gehiago dutela iruditu zaigu, sarritan adineko jendea ere gu bezala ikusten baikenuen.

Jendea honelako bidaiak egitera animatuko al zenukete?


Bai, guk behintzat primeran pasa dugu eta ez da aparteko prestaketarik behar bizikletaz bidaiatzeko. Aldapa gora noizbait “bururatu zait ba hau!” pentsatu dugu, baina ez gara inolaz ere damutu. Hori bai, honelako bidaia egin aurretik lehenago egin duen batenbatekin hitz egitea komeni da eta Frantzia aldera joanez gero komuneko papera eramatea ere bai, bertako kanpinetan ez baitute halakorik.



Ferretería **B**RAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



Juanlu Escudero

Nahiz eta umetan taxista izan nahi zuela esan, Loiolako La Sallen ikasten ari zela antzerkiaren mundua ezagutu eta oso argi ikusi zuen Juanluk zein zen bere bokazioa. Hori dela eta, Zumarragara itzuli zenean, herriko Karmakros taldean antzezten aritu zen eta ordutik ez da ez geldirik egon: Donostiako Antzerki Eskolara joan zen antzezpena ikastera eta Geroarekin, Arriagako konpainiarekin, Madrilgo El Crucerekin, Adosekin... makina bat lan antzeztu ditu.

Azken urtea Urretxu-Zumarragako Antzerki Tailerreko lagunekin lanean buru belarri igaro ondoren, uztailean "El regreso" antzezlan aurkeztu zuten Pagoeta Antzokian. Juanluk zuzendari lanak bete ditu eta emaitzarekin oso gustura ageri den arren, benetan atsegin duena antzeztea denez, azken hilabeteak estatuan zehar arrakasta itzela izaten ari den "Manolito Gafotas" antzeztu eman ditu Ados antzerki taldearekin. Datozen hilabeteetan antzeztan honek zeharo lanpeturik izango duen arren, Juanlu ez da geldirik egotea atsegin duen horietakoa eta bere buruan proiektu ugari dabilzkie biraka, hala nola, Oscar Cadiernorekin batera Pulp Fiction antzezlan prestatzea eta Antzerki Tailerrarekin UTBn emititzeko telesail bat prestatzea.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Taxista.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Denbora galtzea, kirola egitea, irakurtzea, proiektu berriak prestatzea...

-Bizitzeko toki bat?

Alboan mendia duen Euskal Herriko kostaldeko edozein herri.

-Zinea ala antzerkia?

Zinea nahiago dut.

-Zer nahiago duzu, zuzentzea ala antzeztea?

Zuzentzea polita den arren, antzeztea nahiago dut.

-Antzoki bat?

Zelai-Arizti, zabaltzen denean.

-Antzezlan bat?

Alfonso Sastrearen "La taberna fantástica".

-Non da ikuslegorik onena?

Cangas de Morrazora joan ginenean txunditurik gelditu ginen, jendeak kalean gelditu egiten gintuen eta.

-Drama ala komedia?

Komedia oso esker onekoa da.

-Joseba Apaolaza ala George Clooney?

Joseba Apaolaza.

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Sigourney Weaverrekin hitz egitea gustatuko litzaidake.

-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Lagunekin.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Manta bat.

-Eta jasotakoa?

Bota batzuk eta Tonino Carotoneren diska.

-Data bat?

Nire jaioteguna, 1965eko abuztuaren 18a.

-Neska izen bat?

Maialen oso gustukoa dut.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Eskuartera heltzen zaizkidan guztiak irakurtzen ditut, baina normalean Gara.

-Gustuko telebista saioa?

Carlos Soberak aurkezten duen 50X15.

-Bereziki gorroto duzuna?

Ramón Garcíak eta José Luis Morenok aurkezten dituztenak.

-Liburu bat.

Noah Gordonen "El médico".

-Filme bat.

Pulp Fiction eta Airbag.

-Gustuko abestia?

Nino Bravorenak, Mexikoko iraultzakoak...

-Soinu bat.

Euriarena, ohean nagoenean.

-Usain bat.

Lur hezearena.

-Ukitzeko...

Erreketako harriak.

-Janari bat.

Arroza asko atsegin dut, edozein eratarata prestatua.

-Ura ala...

Ardoa, mota guztietakoa, eta garagardoa.

Jokaldirik onena!



UDAL EUSKALTEGIAK

UDAL
EUSKALTEGIAK



Aretxabaleta • Arrasate • Azpeitia • Beasain
Bergara • Deba • Elbar • Elgoibar • Errenteria
Eskoriatza • Hernani • Hondarribia • Irun
Lasarte-Oria • Legazpi • Mutriku • Pasaia
Tolosa • Urretxu • Zarautz • Zumarraga

2000-2001 IKASTURTEKO
EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE,
ALFABETATZE ETA EGA
Modulo eta ordutegi zabalak.
Bekak.

Bulego ordutegia

Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00

Matrikulatzeko epea

Irailaren 1etik 22ra.

16 urtetik gorakoentzat.

Berri gehiago
Udal Euskaltegian.

URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA


Labeaga kalea, 40 A
(Belaustegi plaza berria)

URRETXU

Tel.: 943 72 33 10

euskaltegi.urzum@udal.gipuzkoa.net

URRETXUKO GIROA



URRETXUKO ALDAPA

AVENIDA - BUHAME - EZKURRA

FLORIDA - GAU-MOTZ - GOIKO KALE - LAKET

NAVARRO - OSABA - THE INTREPID FOX